



Arartekoaren 2022R-465-22 Ebazpena, 2022ko azaroaren 3koa. Horren bidez, Lanbideri gomendatzen zaio Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen ebazpena betetzea eta kexagileak eskatutako datuak ematea.

Aurrekariak

Arartekoak kexa bat izapidetzea onartu zuen. Bertan, Arartekoaren esku-hartzea eskatzen zen kexagilea ez zegoelako ados Lanbideko zuzendari nagusiak emandako informazioarekin, informazio publikoa eskuratzeko eskaera bat zela-eta.

Zehazki, kexagileak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabili zuen Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari atxikitako administrazio-erakunde autonomoaren aurrean (aurrerantzean Lanbide), integrazioari buruzko ikerketa-lana zela eta. Ikerketa-lan hori laguntzeko eskatzen zen informazioaren oinarria honako hau zela: nazionalitateen araberrako DSBEaren onuradun diren hartzaileei buruzko informazioa, nazionalitatearen araberrako laguntza ekonomiko horien zenbatekoak, onuradunen kopurua eta zenbatekoak, zenbaki absolutuetan eta ehunekotan, 2000, 2005, 2010, 2015, 2019 edo 2020ko urteei dagozkienak; era berean, gizarte-larrialdiari, gizarte-bazterkeriari, ostatuari eta haurrak zaintzeari buruzko datu horiei buruzko informazioa izatea eskatu zuen.

Lanbidek eskaerari erantzun zion Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren 2021eko uztailaren 7ko Ebazpenean jasotako txostenaren bidez. Ebazpen horren bidez, partzialki onartu zen sarbide-eskaera. Kexagileak ez zuen erantzuna nahikotzat hartu; izan ere, Lanbideren webguneko estekak kontsultatzeko adierazi zioten, baina, bere ustez, ez zioten eskatutako informazio zehatza eman. Aldi berean, eskaera Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari birbideratu zitzaion, eskatutako azken datu-blokeari buruzko informazioa eskuratzeko.

Ados ez zegoenez, kexagileak kexa egin zuen Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean. Organo horrek Lan eta Enplegu Sailari eman eta zuzendu zion sarbidea ematearen aldeko ebazpena, Lanbide erakunde autonomo atxikia aipatuz.

Lan eta Enplegu Sailak eta Lanbidek ez zuten gauzatu kexagileak eskatutako informazioa eskuratzearen eta ematearen aldeko Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen Ebazpenaren edukia, interesdunak kexa egin zuen Arartekoan, aipatutako gertakariak eta argudioak aurkeztuz.

Lanbidek informazioa ez emateko zer arrazoi dituen ezagutzeko, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen irizpidearekin bat etorritz, Arartekoak





idazki bat bidali zion erakunde horri, eta, laburbilduz, honako alderdi hauei buruzko informazioa eskatu zuen:

- Zuon aburuz kexagileak eskatu duen sarbidea ez emateko dauden informaziorako sarbide-mugen justifikazio xehekatua eta arrazoitua, informaziobloke bakoitzaren arabera banakatua, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 18. artikuluan adierazitako muga arabera.
- Kexagileak eskatu dituen datuak eta informazioak Lan eta Enplegu Sailak kudeatzen dituen datu-baseetan biltegiturik eta/edo trataturik dauden.
- Eskatu den informazioa ofizioz jaso duzuen edo erreklamatu diozuen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari, informazio hori kexagileari batera emate aldera.
- Emandako sarbide partzialaren euskarri gisa paper-formatua ez erabiltzeko arrazoiak, eskatzaileak administrazio horrekin duen harremanean bitarteko telematikoak ez erabiltzea erabaki ondorik.

Administrazioak erantzunik eman ez zuenez, informazio-errekerimendua egin zen. Ondoren, Lanbideren erantzun-txosten bat jaso zen Arartekoaren erregistro orokorrean eta, laburbilduz, honako hau adierazten da:

1. Lanbidek partzialki onartzeko emandako ebazpenak diru-sarrerak bermatzeko errentaren (aurrerantzean, DSBE) onuradunen guztizko kopuruari buruzko informaziorako sarbidea aitortzen zuen, baita 2015., 2019. eta 2020. urteetako zenbateko ekonomikoei buruzko informaziorako ere, zenbaki absolutuetan eta ehunekoetan. Nazionalitateen arabeko diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaile/onuradun kopuruari dagokionez, eta nazionalitatearen arabeko laguntza ekonomikoen zenbatekoei dagokienez, argitaratutako taulek jaiotza-eremu geografikoaren aldagaia jasotzen dute, baina ez dauden 193 nazionalitateak. Estatistika-tauletako datuen desagregazioa espedientearen titularraren arabera argitaratzen da, ez ardurapeko ahaide kopuruaren arabera. Lanbidek ez du DSBEa jasotzen duten pertsonen zenbateko ekonomikoen estatistika-taularik argitaratzen, eta DSBEari buruz argitaratutako informazio historikoa 2014. urtean hasten da; beraz, ez dago aurreko urteetako informaziorik.
2. Ez zen nazionalitateen edo ardurapeko ahaide kopuruaren arabera bereizitako eskatutako informazioa eman, horrek informazioa berriaz berriro prestatzea ekarriko lukeelako eta informazio-iturrien tratamendu konplexu bat eskatuko lukeelako; izan ere, datuak nazionalitatearen, aitortutako prestazioaren zenbatekoaren, onuradunen eta titularren arabera biltzea,





- anonimizatzea, ordenatzea eta bereiztea eskatuko luke, baita urteen arabera sistematizatzea ere. Azken finean, informazioa eskuratzeko eskubidearen edukia gainditzen duen *ad hoc* tratamendua egitea ekarriko luke, eta, beraz, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen (aurrerantzean, GIBGOL) 18.1 artikuluko c) letrako ez onartzeko kausa aplika liteke.
3. Era berean, 2000., 2005. eta 2010. urteei buruz eskatutako informazioari dagokionez, Lanbidek ez onartzeko kausatzat hartu du daturik ez izatea; izan ere, erakundea 2011ko urtarrilaren 1ean sortu zen, eta 2012. urtera arte ez zuen bere gain hartu DSBE prestazioak eta etxebizitzarako prestazio osagarriak kudeatzeko eskumena, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez. Ildo horretan, Lanbidek adierazi du ordura arte eskumena Euskadiko aldundiei eta toki-erakundeei zegokiela, eta, beraz, ez duela aipatutako urteei buruz eskatutako informazioa ateratzeko eta ustiatzeko baliabiderik.
 4. Interesdunak eskatutako estatistikak (diru-sarrerak bermatzeko prestazioen onuradunak) Lan eta Enplegu Sailak estatistikaren arloan dituen eskumenen esparruan argitaratutako webgune batean daude. Halaber, erakunde autonomo hori Eusko Jaurlaritzako Sailari atxikita dagoenez, datuak jakinarazten dizkio, administrazio horrek interesgarritzat jotzen dituen datu estatistikoak zabal ditzan.
 5. Lanbideren esku ez zegoen eta administrazio eskuduna helburu zuen informazioari dagokionez (kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila), eskaera sail horretara bidali zen, eta hala adierazi zitzaion interesdunari 2021eko uztailaren 7ko ebazpenaren bidez, GIBGOLen 19. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.
 6. Azkenik, Lanbidek adierazi du informazio publikorako sarbide partziala bitarteko elektronikoen bidez eman duela, GIBGOLen xedatutakoaren arabera, nahiz eta kexagileak hasiera batean paperean eskatu. Horrez gain, erakundeak azaldu du interneteko atarian tresna informatiko berriak lantzen eta gaitzen ari dela, prestazioei buruzko datuak filtroen bidez kontsultatzeko.

Nabarmentzekoa da Lanbidek erantzun-idazkia amaitzeko honako hau adierazi zuela baliatutako argudioei dagokienez: "Idazki honetan jasotzen denak ez du eragotziko Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen aurrean aurkeztutako erreklamazioaren emaitza. Organo honek ez daki horren berri, eta berariaz aipatzen du adierazi berri diren neurriek ez dakartela berekin 2021eko urtailaren 7ko Ebazpena errebokatzea edo berrikustea".

Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:





Gogoetak

I. Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen ebazpena.

Azaldutako aurrekariekin bat etorritik, kexagileak kexa bat jarri zuen Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak emandako onespenez partzialeko ebazpenaren aurka, Lanbidek, informazioa daukan organoa den aldetik, horretarako idatzitako txostenean oinarrituta.

Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen ebazpenaren funtsari dagokionez, Ararteko erakundeak adierazi du ados dagoela Euskadiko administrazio publikoek gardentasuna kontrolatzeko berriazko organoak emandako irizpidearekin; izan ere, aurkeztutako kexa onetsi zuen, eta sailari eskatu zion kexagileari eman ziezaiola eskatutako informazioa, interpretatu baitzuen ezin dela aplikatu GIBGOLen 18. artikuluan jasotako berriro prestatzean oinarritutako ez onartzearen kasua. Batzordearen argudioaren funtsa da berriro prestatzea ez onartzeko irizpidearen justifikazioa antolamendu-, funtzio- edo aurrekontu-izaerako elementu objektiboetan oinarritu behar dela, eta elementu horiek modu arrazoituan identifikatu behar direla. Bestalde, gaineratu du ezin dela jardunbide egokitzat hartu eskatzailea interneteko atari batean argitaratutakora bideratzea, *“cuando no existe una relación directa y completa entre lo publicado y lo realmente solicitado, ya que el derecho de acceso a la información pública debe salvaguardarse”*.

Beraz, uste dugu Lanbidek kontuan hartu behar dituela Arartekoan egindako kexari erantzuteko Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak erakunde espezializatu gisa emandako irizpideak eta oinarriak, nahiz eta batzordearen ebazpenek indar hertsatzailerik ez izan.

II. Sailen eta atxikitako erakundeen arteko koordinazioa eta jakinarazpena.

Alderdiek azaldutako egitateak eta argudioak aztertuta, egiaztatu da Lanbidek, Arartekoaren laguntza-eskaeraren aurrean, berretsi egin dituela hasierako argudioak, eskatutako sarbidea partzialki onartzeari buruzkoak. Antzaz denez, egoera hori lotuta dago Lan eta Enplegu Sailak Lanbideri Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak emandako ebazpena ez jakinarazi izanarekin. Ebazpenak herritarraren kexa onetsi zuen, eta administrazioa eskatutako informazioa ematera behartu zuen.

Ildo horretatik, Arartekoaren iritziz, tresna juridiko eta teknikoak antola daitezke administrazio publikoen arteko koordinazioa errazteko eta hobetzeko, eskatutako informazioa erakunde lotuen edo mendekoen esku dagoen kasuetan, eta, bereziki,





gardentasunaren arloan egindako kekek ezagutzeko eskumena duten organoen ebazpenei erantzuteko.

Hain zuzen ere, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak honako hau gogorarazi dio Lan eta Enplegu Sailari egindako ebazpenean: Gobernu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 13ko Erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkideko Administrazioaren (aurrerantzean, EAE) funtzionamendu-neurriak onartu ziren, informazio publikorako sarbideari, publizitate aktiboari eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturari aurrera egiteari dagokienez. Bertan honako hau jasotzen da: *"Baldin eta sail bati baino gehiagori eskatzen bazaie informazioa eta eskatzen den informazioa askotarikoa bada eta lotuta ez badago, zenbat gairi buruzkoa den eskaera, hainbat espedientetan banatuko da informazioa eskuratzeko espedienteak, erantzuna arinago kudeatzeko. Aitzitik, sail bati baino gehiagori eskatzen bazaie informazioa eta eskatzen den informazioa gai berari buruzkoa bada, espediente bakarra izan dadin ahaleginduko da, eta, zer gairi buruzkoa den eskaera, haren eskumena duen saileko organoak emango du ebazpena, erantzuna koherentea izan dadin".*

Gauzak horrela, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak azkenean uste du Lan eta Enplegu Sailak ebazpen bakarria eman behar zuela, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari zegokion informazioa bildu ondoren. Hau da, Batzordeak uste du, gardentasun-araudian eta Gobernu Kontseiluaren erabakian ezarritakoaren arabera, EAEko administrazioak badituela tresna juridiko eta teknikoak epe eta modu egokian erantzuteko herritarrek informazio publikoa eskuratzeko planteatutako eskaerei. Logikoki, sailen eta EAERI lotutako edo EAERen mendeko erakundeen arteko koordinazioak modu egokian funtzionatu behar luke, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen ebazpenak helarazteko eta jakinarazteko, horrela, alegazioak epe barruan aurkezteko (interpelatutako organoak hala irizten badio), eta emandako txostenaren funtsa jakinarazteko, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari erantzute aldera.

III. Gardentasun aktiboko elementuak eta berrerabilpen-printzipioa

Gardentasun aktiboko arauen arabeko informazioa argitaratzeko betebeharrak alde batera utzita, ontzat eta jardunbide egokitzat jotzen da Lanbide administrazio-erakunde autonomoaren gardentasun-atarian gehitzea *"publikotasun aktiboaren betebeharra duen informazioaz gain, gehien eskatzen den informazioa ere emango da"*, GIBGOLen hitzaurrean adierazitakoaren arabera. Hau da, gardentasunaren alderdi pasiboak ez du esan nahi herritarren eskubideak soilik aintzat hartu behar direnik; aldiz, lan aktiboa egin behar da behin eta berriz eskatutako datuak eta informazioa argitaratzeko, horren bidez baliabideak aurrezteko, eskaera gehiago saihesteko eta Lanbideren jardura publikoaren gardentasuna are gehiago sustatzen laguntzeko.





Era berean, administrazioaren esku dauden datuen argitalpena bultzatzeak hazkunde ekonomikoa eta enplegua sortzen lagunduko luke berrerabilpenaren esparruan, Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legearen arabera.

Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak berrerabilpena administrazio elektronikoaren printzipiotzat jotzen du 68. artikuluan. Honela deskribatzen da:

“Informazio publikoa eta software publikoa berrerabiltzeko printzipioa, Administrazio publikoak horiek eskueran jarrita, beste agente batzuek tresna, produktu edo zerbitzu berriak sortzea izan dezaten”.

Administrazioaren esku dagoen informazioa eta datuak gardentasun aktiboaren eta berrerabilpenaren esparruan argitaratuz gero (errepikatzen diren sarbide-eskaerei dagokienez, nahitaezko informazioaz gain informazio gehigarria emanez), administrazioak gardentasun handiagoa izango luke bere jarduketan, eta, beraz, sektore publikoko jarduketaren efizientziaren eta eraginkortasunaren parametroei jarraikiz, herritarrek gardentasun pasiboaren esparruan dituzten eskubideei arreta emateko izapideak eta kudeaketak aurreztuko lituzke.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako Gomendio hau egiten da

Gomendioa

1. Lanbideri gomendatzen zaio bete dezala Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen onespren-ebazpena, zeinak organo eskudunari agintzen baition kexagileak eskatutako datuak eta informazioa eman ditzan.
2. Sailen eta horiei lotutako edo horien mendeko erakundeen arteko kudeaketaren eta koordinazioaren esparruan, gomendatzen da tresna juridiko eta teknikoak antolatzea; alde batetik, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzean erantzun koordinatua emateko, eta, bestetik, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak emandako ebazpenak aintzat hartzeko eta ezagutzeko, gardentasunaren eta gobernu onaren araudiaren helburu eta printzipio nagusiak betetze aldera.





3. Jardunbide egoki edo hobekuntza gisa, gomendatzen da informazioa eta datuak gardentasun aktiboaren esparruan argitaratzeaz edo eskubideei alderdi pasiboan erantzuteaz gain, gardentasuna eta berrerabilpenaren printzipioa bultzatzea, behin eta berriz eskatzen den informazioa eta garapen ekonomiko eta soziala susta dezaketen datuak argitaratuz, sektore publikoko datuak berrerabiltzearen arloko legeriaren arabera.

